

SANTA TERESA EUSKARAZ (ITZULPENAREN HARIAN GOGOETATXOA)

Sarrera

Idatzizko gogoetatxo honi ekin nionean, inauteri giroa zen. Santa Teresaren testuek gaztelaniaz erakusten dute beren izaera jatorra, gaztelania du haren obrak berezko jantzia. Beste hizkuntzetara egindako itzulpenak ez ote dira, nolabait, obra originalaren mozorroak? Hona, inauteri giroan, airean uzten dudana galdera. Eta ez nuke nahi inola ere hala izan dadin. *Traduttore Traditore* italiarazko esaerak, itzultzaile txarrak kalifikatzen dituenak, itzulpen-ahalegin honekin zerikusirik ez izatea nahiko nuke. Ez, Santa Teresa euskarara itzultzean, ez nuke nahi euskal jantzi hau haren egiazko nortasuna ezkutatzen duen mozorroa izan dadin, originalaren isla garbia, euskaraz adierazia, izan dadila baizik.

Avilako santaren idazlan guztiak euskarara itzultzea jomuga dudala ekin nion lanari orain dela urte eta erdi inguru. 2015. urtean betetzen da haren jaiotzaren 5. mendeurrena eta ordu-rako edizioa prest izatea da asmoa. Lehen obra nagusiak ia amaiturik daudenean (*Bizitza Liburua*, hau argitaratua ere bai, eta *Perfekzio Bidea* amaiturik eta *Barne Gaztelua* laster amaitzeko), gogoetatxo bat egiteko unea dela deritzot, *Karmel* aldizkaria lekuko dudala.

Zailtasunak, barruko fenomenoak hitzetan adierazteko

Barruko gauzak adierazteko zailtasunak eta batez ere itzul-tze lanekoak aipatuz hastea, kasu honetan, berezkoa dela diru-

di. Izan ere, Teresaren lanetan, barnera begiratzea funtsezko gauza bihurtu zen. *Fundazioak* eta *Gutunak* direla, esango nuke, berariaz barne-begiratze horretatik at daudenak. Batean, fundazioen gertakariak eta gorabeherak kontatzen dira; bestean, berriz, Teresak bere garaiko hainbat pertsonarekin izan zituen idatzizko harremanak. Beraz, kontakizunezko lanak direla esan behar. Dena dela, hauetan ere, ariman gertatzen zaiona, barne-santutegian Autoreak sumatzen duen Jainkoaren presentzia, gogo-gogoan darabil beti, sekula ezabatu gabe. Are gehiago, barneko su horren indarra dute eragile bi obra horietan kontatzen diren harreman, gorabehera eta joan-etorriek.

Honela idatzi genuen *Bizitza Liburuaren* sarreran:

Bizitza Liburua aitor-entzuleen aginduz eta eskariz burutua da. Bere arimaren historia kontatzen digu hor, Jainkoarekin harreman pertsonal eta barne-barnekoan bizi izandako arimaren historia; aitor-entzuleentzat idatzitako kontu-emate zebatz eta barrigarria. Beraz, haien agindu eta eskariari erantzuteko, barnealdera begira jarri behar izan zuen, han gertatzen zena maitzen, arakutzen; bibotzaren zirrikituetatik isurtzen zena, barneko ispiluan islatzen zena, hango bizitza joria, ñabarduraz josia, hitzetan adierazi eta idazlumaz moldatzen saiatu behar zuen.

Barnealdera begiratu eta bere bizitza idatziz kontatu beharra gertatu zitzaion, bada, esperientzia erlijioso sakonaren txingar gainean, ariman gainez egin beharrez sumatzen zituen grazia mistikoen eraginez. Hau 1555-1560. urte inguruan izan zen, beraz 45 urtetik 50era bitartean zenean.

Barne-esperientzia haiek ezobikoak izanik eta gehiago eta gehiagora zihoazela ikusirik, gure karmeldarrak aztertu beharra izan zuen haiek ulertu eta bereizi abal izateko. Une horretan, berak esaten duenez, letradunengana jo zuen. Letradun horiek jakintsu eta teologoak ziren. Hauek, Teresaren barne-bizitza jori eta misterioetan argi egin abal izateko, bizitza hura idazteko agindu zioten. Agindu hari esker dugu orain Bizitza Liburu mirezgarria, haien asmo edo xedea praktikokoagoa bazen ere, hau da, arima hari bizitza espiritualean laguntzea.

Une horretatik barne-aztertze hori bere-berea izan zuen Teresak bere bizitzaren azken-azkenera arte.

Barne-esperientzia haiek aitor-entzuleentzat idatziz jartzea ezinezkoa gertatzen zaio hasiera batean. Honela agertzen du ondorengo bi pasarte hauetan: “Horren esperientzia duenak ulertuko dit, nik ez baitakit esaten honela ulertzen ez bada. Azaltzen hasi nintzen teologia mistikoan adimenak bere jardue-
ra galtzen du, Jainkoak etenda uzten baitu, gero adieraziko du-
danez, ahal badut eta Berak horretarako mesedea egiten badit” (*Bizitza Liburua*, 12, 5).

“Jainkoak ulertarazi dit argi-argi eta esaten jakiteko eran, ni-
re aitor-entzuleak txundituak geratzeraino eta ni haiek baino
txundituago, neure moldakaiztasuna hobeki ezagutzen nuelako.
Hau orain dela gutxi” (*Bizitza Liburua*, 12, 6).

Letretara eta hitz arruntetara ezin ekarrikoak ziruditen. Ber-
berak esango digu geroago horren zergatia. Jainkoaren espe-
rientzia mistikoaren grazia jaso zuen; baina oraindik ez espe-
rientzia hura ulertzeko, are gutxiago adierazteko eta komunika-
tzeko grazia. Gauza hauek adierazten jakitea ere Jainkoaren
grazia dela dio berak. Hona egiten digun aitorpena: “Gauza bat
da Jaunak mesedea egitea, beste bat zer mesede eta zer grazia
den ulertzea, eta beste bat nolakoa den esaten eta azaltzen jaki-
tea” (*Bizitza Liburua*, 17, 5).

Lehen graduko otoitza azaldu ondoren, 13. kapituluaren
amaieran, bere aitor-entzuleari, A. Garcia Toledori, hau esaten
dio: “Ez dakit zuzen esaten asmatzen dudan. Berorrek ikusiko
du. Jaunak nahi beza beraren gogoia egiten jakin dezadala,
amen” (*Bizitza Liburua*, 13, 22).

Hari beretik, hau esaten dio geroago: “Beharbada, nik ez da-
kit zer esaten dudan. Berorrek jakingo du, ezertan asmatzen
dudan, Jaunak horretan esperientzia eman baitio, baina luza-
rokoa ez denez gero, beharbada, nik adina ez zuen begiratuko”
(*Bizitza Liburua*, 20, 21).

Bizitza Liburua, *Perfekzio Bidea*, eta *Barne Gaztelua* jotzen
dira haren obra nagusi eta enblematikotzat. Lehenengoa, esan
dugunez, aitor-entzuleen aginduz idatzi zuen eta hirugarrena, A.

Probintzialaren, A. Grazianen, aginduz. *Perfekzio Bidea*, ordea, Avilako San Josereneko mojen eskariari men eginez burutu zuen. Hau da, *Bizitza Liburua* aitor-entzuleei Jainkoak egiten zizkion mesedeen eta ariman gertatzen zitzaizkion gauza ezohikoen kontu emateko idatzia zenez gero, San Josereneko ahizpek ez zuten hartarako sarbiderik eta Teresa beren amaren lanak irakurtzeko irrika biziz zeuden, ezinbestean. Obra honi autoreak berak eginiko hitzaurrearen aurreko oharrean hitz hauek ageri dira:

“Liburu hau, Teresa Jesusenak, gure Jaunaren eta Jainkoaren Ama Birjina aintzatsu eta gure Amaren laguntzaz, Karmengo Amaren hasierako Erregelaren arabera fundatu zituen monasterioetako ahizpa erlijioso bere alabei emandako abisu eta aholkuez ari da. Batez ere Avilako San Jose Monasterioko ahizpei zuzendua dago, lehenbiziko fundazioa izan baitzen eta bertan priore izan baitzen idatzi zuenean”.

Liburu hau idaztean, Teresa gogotsuago dago eta bere burua gai ikusten duela dirudi, bere alaba moja karmeldar oinutsei, batez ere San Josereneko mojei, otoitzaz eta perfekzio-bideaz irakaspen probetxugarriak emateko. Alde batetik, esperientzia eta jakintza praktikoa handia bildu du otoitz bideetan; bestetik, monasterioko bere alabek maite dute eta maitasunak zoztor guztiak kentzen ditu. Are gehiago, monasterio barruko xehetasun txikietan, emakumeek baliteke, gizonezko letradun jakintsuek baino hobeki asmatzea. Beraz, hor dugu Teresa, maistra espiritual berdingabe bihurturik, estilo lasaian eta bere ahizpekin elkarrizketan, otoitzari eta perfekzio-bizitzari buruzko lan didaktiko fin-fina idazten. Hona goiko lerroetan idatzi ditudan ideia horiek Teresaren beraren hitzetan: “Haiek didaten maitasun handiak, akastuna eta hala-holako idazkeran adierazia izan arren, oso ongi idatziak dauden eta zer idazten duen dakienez liburu batzuk baino ere onargarriago egin dezake”. Eta pixka bat aurrerago hau dio: “Badakit ez dela nigan falta maitasun eta desirarik, ahal dudan guztian nire ahizpen arimek laguntzeko, Jaunaren zerbitzuan oso aurrera joan daitezen. Eta maitasun hau, ditudan urte eta monasterio batzuetako eskarmentuarekin batera, baliteke ongi etortzea gauza txikitxoetan

jakintsuek baino hobeki asmatzeko, hauek zeregin garrantzitsuetan ari direlako eta gizon sendoak direlako, ez baitiete kasu handirik egiten itxura batean ezer ez diren gauzei”.

Baina goazen hirugarren obra nagusira, *Barne Gaztelura*. Teresa bizi zela *Bizitza Liburua* Inkisizioak bahitu zuen 1575ean. Haren biografo eta adituek diotenez, Eboliko Printzesaren mendekua izan zen bahitze hori, Teresak bere monasterioetan muturra sartzen utzi ez ziolako. Dena dela, Inkisizioak bahiturik izan zuen, autorea hil ondoren argitaratzea erabaki zen arte. Eskuizkribu originala eskuraturik, hura erabili zuen Fr. Luis Leongoak Salamancan obra hura argitaratzeko. 1588an izan zen hori. Bien bitartean iritziz ere, gauza asko ongi adierazirik zeudelako liburu hartan. Han idatzirikoa oroimenera ekartzea, berriz, ezinezkoa izango zitzaiolakoan, hura berregiteko ahalegina ustel irtengo zela uste zuen. Bestalde, *Bizitza* idatzi zenez gero 12 urte igaro ziren eta aldi horretan grazia mistiko berriak eta goi-mailakoak izan zituen, *Bizitza Liburuan* idatzirik ez zeudenak. Urte haietan, gainera, arimako gertakari mistiko haiek ezin hobeki irakurtzen zekien maisu espiritual berdina-bekoa izan zuen: Joan Gurutzekoa. Beraz, bere buruaren barne-miatze hartan ikuspegi zehatzago, sakonago eta osoagoa lortu zuen Teresak eta, horrela, sintesi teologiko egokiagoa egin ahal izateko eran izango da. Horrela ikusiz, Inkisizioak bahiturik izan liburu hark osatu beharra zuen, geroko esperientzia mistiko berriekin. Horren harian, honela idazten dio bere neba Lorenzo Cepedari 1577-01-17ko dataz: “Gotzaina (Avilakoa, Álvaro Mendoza) bidali nuen liburua (*Bizitza*) eskatzera, beharbada, Jaunak geroago eman didanarekin osa daitekeela iruditzen zaidalako eta horrela, beste bat eta handiagoa egin”.

Hasiera batean, asmo hori ez zen aurrera joan. Gotzainak ez zion eskuizkribu hura lortu. Eta gauzak oraindik gehiago okertzeko, lanaren lanez, Teresaren osasunak txarrera egin zuen. Zeharo nekaturik zen, trauma fisiko sakonaz. Min handiak zituen eta buruko zaratak; horrela, nahiko jota zegoen eta beldur zen ezertarako gauza ez zela geratuko ote zen. Gutunak idazteko orduan ere, berak ahotsez esan eta etxeko beste batek idatzi

behar izaten zizkion, medikuak hala aginduta. Beraz, *Bizitza Liburua* osatzeko eta berregiteko asmoak bertan behera utzi behar, noraezean.

Hala ere, 1577ko otsailaren 6 edo 7an hasita guztiz ezindua egon ondoren, maiatzaren amaierarantz, pixka bat suspertzen hasi zenean, Toledoko monasterioko mintzalekuan A. Gracián Probintzialaren bisita izan zuen. Honek idatzirik utzi zituen solasaldi hartako gauzatxo batzuk. Hona hemen neure erara euskaraz emanak:

Egoitzak liburuari dagokionez, ni haren Prelatua nintzela eta haren espirituaren gauza asko mintzagai genituela, esan zidan berak: Bai ongi idatzia dagoela puntu hori Inkisizioan dagoen nire Bizitza liburuan!

Nik esan nion: Bada, liburu hori eskuratu ezin dugunez gero, saia zaitez oroimenera ekartzen eta horrela hartaz gogora datorrizunaz eta beste gauza batzuek idatz ezazu beste liburu bat eta azaldu doktrina orokorra, esperientziak nori gertatu zitzaizkion aitpatu gabe.

Eta Egoitzak liburu hau idatz zezala agindu nion; hartarako gogoia gehiago berotu nabirik, Velázquez jaunari ere horretaz kontsulta egiteko esan nion, batzuetan berarekin aitortzen baitzen. Eta bark ere idazteko agindu zion.

Hainbat urte geroago, Graciánek berak osatzen du solasaldi hartako berri ematea:

Ekin eta ekin egiten nion nik ama Teresari Toledon liburu bura, gero idatziko zuen Egoitzak deritzona, idatz zezan. Hark arrazoi berarekin, haren liburuetan askotan errepikatzen denarekin, erantzuten zidan beti.

—Zertarako nahi duzue nik idatz dezadan? Idatz dezatela letradunek, ikasi dutenek, ni ezjakin bat bainaiz eta ez baitut jakingo zer esaten dudan ere: bitz bat jarriko dut beste bat jarri beharrean eta horrela kalte egingo dut. Lehen ere nabikoa liburu daude otoitz gauzei buruz; Jainkoagatik, utz diezadatela neure goruaz iruten eta neure koruko eta erlijioako zereginak betetzen, gainerako abizpei bezala, ni ez bainaiz idazteko, ezta ez baitut osasunik ez bururik horretarako, etab.

A. Graciánek eta Velázquez jaunak lortu zuten, azkenik, Ama Teresaren erresistentzia gainditzea, eta 1577ko ekainaren 2an, Toledon, *Barne Gaztelua* liburua idazteari ekin zion. Dena dela, hitzaurrean azpimarratzen du zein zail gertatu zitzaion kasu honetan “obedientzia” eta berriro adieraziko ditu erresistentzia horretarako zituen arrazoiak: buruko min handietatik hasita idazteko inspirazio gabezia nabarmeneraino. Honela agertzen du berak hori:

“Obedientziak agindutako gauzetatik gutxi gertatu zaizkit, otoiitzeko gauzez orain idaztea bezain zail; alde batetik, uste dudalako Jaunak ez didala ematen hori egiteko espiritua ezta gogoia ere; bestetik, orain dela hiru hilabeterik hona burua hain burrundara eta ahulezia handiekin dut, non behar-beharrezko gauzetarako ere neke handiz idazten baitut. Hala ere, obedientziaren indarrak ezinezkoak diruditen gauzak erraztu egiten dituela kontuan izanik, borondateak egitera jotzen du oso gogo onez, berezko izaerak hartan neke handia hartzen duela dirudien arren”.

Jainkoaren laguntzan du uste ona eta, bera oroimen kaskarrekoa izanik, Jaunak gogoraziko dizkiola, uste du, hango (*Bizitza Liburuko*) gauza asko, adituen iritziz, ongi esanak zirenak; eta gaineratzen du, hala ez balitz, obedientziagatik nekeak hartzeak ez dakarrela inondik ere kalterik, mesedea baizik:

“Jaunak ezer berririk esatea nahi badu, Haren Maiestateak emango du edota niri oroimenera ekartzea nahiko du beste batzuetan esan dudana; hauxe ere nahikotzat izango nuke, hain oroimen kaskarra izanik, zorionsua nintzateke gauza batzuk, ziotenez ongi esanak zirenak, berriro esaten asmatuko banu, galduak balira ere badaezpada. Jaunak hau ere emango ez balit, obedientziagatik nekatuz eta nire buruko mina areagotuz, irabaziaz geratuko nintzateke, esan dezadanetik inork onurarik aterako ez balu ere”.

Galduak balira ere badaezpada hitz horietan, Inkisizioaren aipu erdi estalia dago.

Idazterakoan, aipaturiko bi aholkulari horien argibideei men egingo die:

“Eta honela, agindua betetzeari ekin diot gaur, Hirutasun txit Santuaren egunean, 1577. urtean, une honetan nagoen Tole-doko Karmengo San Jose monasterio honetan; esan dezadan guztian idazteko agindu didaten haien iritziaren mende jartzen naiz, pertsona oso jakitsuak baitira. Erromako Eliza Katoliko santuak sinesten duenaz bat ez datorren gauzaren bat esango banu, nire ezjakintasunagatik litzateke eta ez maleziagatik. Hau gauza ziurtzat izan daiteke, eta beti nago eta egongo naiz eta izan naiz haren mende, Jainkoari eskerrak. Bedeinkatua eta go-retsia izan bedi beti-betiko, amen”.

Ez du idatziko bi aholkulari haientzat, ezta aitor-entzuleentzat ere *Bizitza Liburua* idatzi zuenez, bere monasterioetako moja karmeldar oinutsentzat baizik. Hauek jende xumea ziren, Teresaren lumatik sorturiko guztia esker oneko begiez eta maitasunez hartuko zutenak:

“Idazteko agindu zidanak esan zidan, Karmengo gure Amaren monasterioetako moja hauek otoitzeko zalantza batzuk norbaitek argitu beharra dutela, eta uste duela emakumeek hobeki ulertzen dutela beste emakume batzuen hitz egiteko era, eta niri didaten maitasunaz egokiago etorriko zitzaizela nik esan niezaiena; arrazoi honengatik, uste du, nolabaiteko garrantzia izan dezakeela, zerbait esaten asmatzen bada; eta horregatik, idaztean haiekin hitz eginez joango naiz, beste pertsona batzuei egoki etor dakiekeela pentsatzea zentzugabea delako”.

Goiko lerroetan ageri denez, *Barne Gaztelua* idazteko proiektua apala izan zen. Jainkoaren gauzei emanda zeuden karmeldar monasterioetako mojak izango ziren irakurleak, haiei otoitz-bideko zenbait zalantza argitzeko asmoz idazten du. Hasieran beste irakurlerik ez du aurreikusten: *beste pertsona batzuei egoki etor dakiekeela pentsatzea zentzugabea delako*. Dena dela, lortu zen emaitzak aurreikuspen guztiak gaindituko ditu eta, aditu askoren iritziz, haren lumatik irtendako obrarik hoberena da. Haren lurreko azken aroko fruitu heldua dugu, autorearen behin betiko bilakabide espirituala agertuz batera, aurreko obrak, *Bizitza Liburua* eta *Perfekzio Bidea* osatzen dituenak.

Gorago ikusi dugunez, hitzaurrean ez du agertzen konfiantza handirik bere buruagan. Gero, hasierako duda-mudak alde batera utzirik, erraztasun handiaz idatziko du, aurrez berariazko eske-marik egin gabe berez-berez irteten zaiola dirudi. Hala ere, laugarren egoitzetara arte ia arnasa batean idatzi ondoren, barne-espierentzien hotzikarak harturik, Espiritu Santuaren laguntza eskatzen du. Izan ere, naturaz gaindiko unean sartzen da arima laugarren egoitzaz gero, otoitz mistikoan, goi-graziaskoan. Gauza bera egiten du bosgarren egoitzen hasieran eta baita seigarren egoitzen hasieran ere. Zazpigarren eta azken egoitzetan ez du bere burua duin ikusten halako gauza gorenez aritzeko. Horregatik, lau kapitulu nahiko laburretan esatekoak esanik, isiltasunari egingo dio leku. Hona hemen beraren hitzak, hurrenez hurren, laugarren, bosgarren eta seigarren egoitzen hasieretan:

“Laugarren egoitzez hitz egiten hasteko oso beharrezkoa dut egin dudana, hau da, Espiritu Santuari neure burua gomendatzea eta hemendik aurrera nire ordez hitz egin dezala eskatzea, geratzen dena zuek ulertzeko eran esan dezadan”. (Laugarren Egoitzak, kap. 1, 1).

“Oi ene ahizpak!, nola adierazi nik zuoi bosgarren egoitzetan gordetzen diren aberastasuna, altxorrak eta atseginak? Uste dut hobe litzatekeela ezer ez esatea geratzen diren ondorengoei buruz, bada, ezin da adierazi, eta adimenak ere ezin du ulertu, ezta konparazioek ere ez dute balio hori azaltzeko, lurreko gauzak kaskarregiak direlako xede honetarako.

Bidali, ene Jauna, zerutik argia, nik argi pixka bat egin diezaiedan zure mirabe hauei, haietako batzuek gozotasun hauetaz hain sarri gozatzea nahi izan duzunez gero, atzipetuak izan ez daitezen, deabruak argizko aingeru-itxurak harturik, haien gogo guztia Zuri poz ematen aritzea baita”. (Bosgarren Egoitzak, kap. 1, 1).

“Gatozen, bada, Espiritu Santuaren laguntzaz, seigarren egoitzei buruz hitz egitera; arima hemen Senarraganako maiteminez zauritua geratzen da eta bakarrik egoteko asti gehiago lortzen eta, bere biziera kontuan izanik, bakardade hau eragotz diezaiokeen guztia saihesten ahalegintzen da”. (Seigarren Egoitzak, kap. 1, 1).

Euskarazko janzkia

Gure Santaren obra bikainari euskarazko janzki apain eta duina, beraren betekoa, egiten saiatu gara. Helburua lortu dugun ala ez irakurleak esan beharko du, baina lana eta ahalegina hor daude behintzat. Ez da beti erraz gertatzen: itsaso barean leun eta gozo aurrera zoazela, bat-batean haizea harrotu eta dena kizkurtzen eta nahasten denez, hala gertatzen da hemen ere. Egungo argitalpenetan haren testuak ukitu txikiekin eta pixka bat gaurkoturik ageri dira, baina horrek ez du kentzen Teresaren zenbait esaldiren zailtasuna. Nondik datozen zailtasunak? *Karmel* aldizkari honetan (2012-1) Andoni Oleak niri egin zidan elkarrizketa argitaratu zen. *Santa Teresaren autobiografia euskaraz* (itzultzailearekin elkarrizketa) zuen izenburua, eta itzulitzeko zailtasunei dagokienez, erantzuna honela zetorren:

Santa Teresa, karmeldarrontzat, gutxi-asko ezaguna da, baina gauza bat da oro har ezagutzea eta beste bat haren testuak itzulitzea. Itzultzerakoan testu originala zehatz-mehatz ulertu eta interpretatu behar da. Behin hori egindakoa, eduki horri euskarazko janzkia jartzea errazagoa da. Une batzuetan, itsasoan aldeko haizeaz joatea legez da, baina ustekabeen haizea aldatu eta zurrumbiloan sarturik ikusten dau batek bere burua. Hori, Santa Teresaren autobiografiaren ia kapitulu guztietan jazotzen da; hasi eta amaitu, buruhauste eta zailtasun barik, nekez egiten da...

Behin *Bizitza Liburua* itzuli ondoren, gainerako obrak itzultzeko bidearen erdia baino gehiago egina nuelakoan nengoen; haren euskarazko janzkiaren moldea egoki ebakia eta ia albaindua nuela egin nuen amets, baina hori nire ametsa zen, desirak pizturiko irudipena. Egia da, egitura asko errepikatzen zirela gainerako liburuetan eta horiek pixka bat landuak nituela... Baina ustekabeen beste egitura batzuk agertzen ziren, beste zailtasun batzuk, Teresaren esaldi luzeak, kasu batzuetan gure logikarako nahasi samarrak, eta berriro ere burmuina esutu beharra zegoen. Aipaturiko elkarrizketa horretan bertan

ematen da gure santaren syntaxian aurkitu ditudan zailtasun batzuen berri:

Gaiaren aldetiko zailtasunez gainera, Santa Teresaren estiloa bera be nahiko korapilatsu eta bihurria da: XVI. mendeko gaztelera, esamoldez aberatsa eta, ziur asko, ahozko gaztelaren ekarri ugaria erakusten dauana. Sintagmak eta esaldiak oso luzeak, askotan gure logikaren haria haustekoak eta, oraindino gehiago korapilatzeko, parentesi ugari dabenak. Hainbat kasutan subjektua ezkutuan danean, kontu handiz jardun behar da, oker ez interpretatzeko. Bestalde, Teresak oso bizkor idazten dau; idatzirikoa barriro ikusteko eta orrazteko asti barik izan ohi zan. Hortik, syntaxian koherentziarik eza atal batzuetan, eta lotura eta zertzelada batzuk hain argi ez geratzea beste batzuetan, batez be itzuli behar dauan batentzat.

Dena dela, gure santaren estiloa bizi-bizia da; gogo-gogoan ditu bere irakurleak, oso hurbil sumatzen ditu eta haientzat idazten du maitasunez beterik, batez ere San Josereneko bere alaba karmeldarrentzat idazten duenean. Jeannine Poitrey-k *Vocabulario de Santa Teresa* liburuaren sarreran dio, gaztetan Teresak zaldun-liburuak irakurtzen zituela, ez haietan atsegin hartzen zuelako soilik, baita idazten eta ideiak komunikatzen ikasteko eta estiloa lantzeko ere. Gerrogo, bere garaiko liburu espiritualak ere irakurri zituela dio, baina ez estiloa lantzeko, espirituzko irakaspenak jasotzeko baizik. Teresaren garaikoek esaten omen zuten berari entzuten zeudela zirudiela haren libururen bat ozenki irakurtzen zenean. Izan ere, haren ondoan, garai hartako idazle espiritual ikasiak oso astun eta aspergarriak zirela diosku autore honek: “La viveza del lenguaje teresiano se pone más en evidencia si se compara con los escritores de escuela, especialmente los espirituales que, tocando los mismos temas que ella toca, resultan pesados, plúmbeos mientras ella mantiene el interés de los lectores sin desfallecer”.

Teresaren terminologia erlijiosoa

Gure santak darabilen terminologia erlijiosoan barneratzea lan luze eta nekagarria litzateke. Horregatik, testu arruntetan gutxi ikus daitezkeen termino batzuen lagin txiki bat agertuko dut soilik. Otoitzaz eta barne-bizitzaz ari da, gehienbat, eta arlo horretako termino, sintagma eta esamoldeak ekarriko ditugu; bide batez, termino horiek nola datozen eta esaldietan nola kokatzen dituen ikusteko, hau da, testuingurua hobeki jaso ahal izateko, testuaren atal batzuk aldatuko ditut hona.

Luze ari da *Bizitza Liburuan* otoitzaren lau graduak azaltzen. *Perfekzio Bidean* berariaz garatzen du gai hori. Otoitz jardueraz ari denean, Jesusek irakatsiriko otoitzaz, Pater Nosterraz, baliatzen da jarduera eta jarrera horren sekretuak aditzera emateko. Hor irteten dira, ezinbestean, *abozko otoitza*, *gogoetazko otoitza*, *meditazioa* edo *gogoeta* (oración vocal, oración mental, meditación). Ahozko otoitza, ohikoena eta lauena bada ere, estimu handitan du eta askok egin dezaketen bakarra dela dio, baina benetakoa izango bada, ez duela sekula izan behar ahozkoa soilik, gogoetazkoaz batera egiten dena baizik.

Otoitz-bide honetan, alde batetik aszetikari dagokiona dago eta bestetik, mistikari dagokiona. Aszetikaren bidea, gizakiak bere ahaleginez (betiere Jainkoaren ohiko laguntzaz) lor dezakeena da; horregatik, *lortua* dela esango genuke. Mistikaren bidea, ordea, Jainkoaren graziaren esparrua da oso-osoan; gizakiak ez du hor ezer egiterik, Jainkoaren mesede horiek hartzeko prestatzea izan ezik eta prestaera horretarako ere, bere ahaleginekin batera, Jainkoaren graziak lagunduko dio; horregatik, *hartua* dela esango genuke. Beraz, mistika alde hau, *naturaz gaindikoa* da (oración mística o sobrenatural deritzo Teresak). Orri azpiko ohar batean (Tomás Álvarez en oharrak hartu ditugu, gehienbat, euskal ediziorako) hau agiri da: *Naturaz gaindikoa*: Teresarengan ez du termino honek gaur egungo

teologian duen esanahi bera; harengan, handi-handika, mistikoaren edo goi-isurizkoaren balioa du.

Gelditasunezko otoitza (oración de quietud Teresaren arabera): otoitz mistikoaren lehen graduetako bat dugu.

Gelditasuna eta arimaren bildutasuna (quietud y recogimiento del alma): Bi termino hauek bigarren graduko otoitza adierazten dute (otoitz mistikorako sarrera).

*Jainko-maitasunaren pindartxo*a: pindartxo edo txingartxo, Mendebaldeko mistikan ohikoa den irudia (“scintilla animae”); Teresarengan ere sarri ageri da, ez *Bizitzan* soilik, baita haren beste idazlan batzuetan ere. *Centellita* deritzo berak.

Bat-egitezko otoitza (oración de unión): gelditasunezko otoitzean kontenplazio hutsa dela esan nahi du eta horrela, arima, Mariaren astialdi santuaz gozaten dago; otoitz honetan, ordea, Marta ere izan daiteke, kontenplazioa eta ekintza biak batean bilduz. Ebanjelioko pasartearen aipamena (Lk 10, 38-42). Marta eta Maria, tradizioz, ekintzaren eta kontenplazioaren sinboloak dira hurrenez hurren.

Laugarren ura: laugarren graduko otoitza 18. kapitulutik 21.era bitartean aztertuko du. Berrero jotzen du baratzearen eta uraren irudira. Laugarren ura zeruko euria da; gai aldetik, estasioko otoitz edo egoera mistikoari dagokio (10. zenbakitik 14. era), baina estasi hitza bera ez da agertzen hemen; geroago agertuko da (20, 1, 28; 21, 12; 28, 9; 29, 14).

Laugarren graduko otoitza edota, uraren konparazioari jarraituz, laugarren ura azaltzeko bere ezina edo gauzaeza agertzen du behin eta berrero:

“Hemen ez da ezer sentitzen, gozatu baizik zer gozaten den ulertu gabe. Ulertzen da bai ondasun bat gozaten dela, ondasun guztiak batera biltzen dituen, baina ez da ulertzen ondasun hau. Zentzumen guztiak daude poz honek harturik eta haietako bat ere ez dago beste zerbaitetan aritzeko libre,

ez kanpotik eta ez barrutik aritzeko. Lehenago baimena ematen zitzaien, esaten dudan moduan, sentitzen duten poz handiaren seinale batzuk emateko; hemen arimak gehiago gozatzeko du, ez da konparatzerik ere, eta askoz ere gutxiago aditzera eman daiteke, gorputzean ez delako ahalmenik, eta arimak ere ez duelako poz hura adierazteko ahalmenik. Une hartan guztia izango luke enbarazu eta oinaze eta eragozpen bere atsedenerako; eta ahalmen guztien batasuna bada diot, nahi izanda ere, –egoera hartan balego diot– ezin du, eta ahal badu, orduan ez da batasuna.

Batasuna deitzen dioten hori nola den eta zer den, nik ezin adieraz dezaket. Teologia mistikoan azaltzen da hori, baina nik ez dakit horko izenak ematen, eta ez dut ulertzen zer den go-goia ezta nola bereizten den arima edo espiritutik ere; guztia gauza bera delakoan naiz, arima noizbait bere baitatik irteten bada ere, erretzen eta garra eginda dagoen su antzera, eta batzuetan su hau indarrez hazten bada ere; gar hau suaren gain oso gora igotzen da, baina ez da horratik gauza desberdina, suan dagoen gar bera baizik.

Hau beroriek ulertuko dute beren jakinduriaz, nik ez baitakit gehiago esaten. Nik nahi dudana da jainkozko batasun honetan dagoenean arimak zer sentitzen duen agertzea” (*Bizitza Liburua*, 18, 1,2).

Grazia mistikoetako hainbat termino

Otoitz mistikoaren maila gorenetan gertatzen diren zenbait esperientzia edo fenomenoren terminoak sartzen ditut hemen. Beraren hitzak hona ekartzea izango da egokiena. Honela dio:

“Jainkoaren laguntzaz jakin nahi nuke azaltzen zer alde dagoen *bat-egitetik liluramendu* edo *goraldi* edo *espirituaren begaldi* deitzen dioten edo *gainezkaldira*, hauek guztiak gauza bera baitira. Izen desberdin hauek gauza bat bera direla diot,

eta *estasia* ere deitzen zaio. Bat-egitea baino askoz goragokoa da” (*Bizitza Liburua*, 20, 1).

Berriro ere ohiko terminoak erabiltzen dituela adierazten digu. Egoki dator San Joan Gurutzekok Teresaren doktrina honi buruz idatzitako gorespen-hitzak hona aldatzea: “También la bienaventurada Teresa de Jesús, nuestra Madre, dejó escritas de estas cosas de espíritu admirablemente, las cuales espero en Dios saldrán presto impresas a la luz” (*Cántico A 12*, 6).

Euskarazko terminoei dagokienez, hona kapitulu honen hasieran ageri diren gatzelaniazko hitz batzuk eta euskarazko ordainak: *arrobamiento: liluramendua; elevamiento: goraldi; vuelo de espíritu: espirituaren begaldia; arrebatamiento (rapto): gainezkaldia; éxtasis: estasia...*

Hauek guztiak gauza bera direla dio Teresak; *Barne Gazteluan* oraindik zehatzago eta esperientzia handiagoaz ari da grazia horietaz eta arimak era desberdinez sentitzen dituela dio. Hona beraren hitzak:

“Bada beste *liluramendu* modu bat, edo *espirituaren begaldia* deitzen diot nik, izatez guztia bat izan arren, barruan oso desberdin sentitzen dena; izan ere, batzuetan bat-batean arimaren eragin hain bizia sumatzen da, non espiritua *harrapatua* dela baitirudi, batez ere hasiera batean, beldur handia ematen duen abiaduraz; horregatik esaten nuen Jainkoagandik mesede hauek hartzen dituenak adore handia beharko duela, eta baita fedea eta konfiantza eta Jainkoaren borondatearekin oso-osoa bat eginik egotea ere, arimaz nahi duena egin dezan” (*Barne Gaztelua*, 6. Egoitzak, 5. kap. 1. zenb.).

Konparazio eta alegoriak

Bere irakaspenak eta barruko gauza ezkutu horiek argiago aditzera emateko, Teresak konparazio eta alegorietara jotzen du batzuetan. Ospetsu bihurtu dira haietako batzuk, esaterako, *Bi-*

zitza Liburuan, otoitzaren lau graduak azaltzeko darabilen uraren eta baratzearen alegoria. Konparazio batez baliatu beharko duela dio. Konparazioa baino gehiago alegoria dela esango nuke, kapitulu askotan luzatzen baita. Hona hemen hasiera:

“Konparazio hau irakurri edo entzun dudalakoan nago –baina oroimen txarra dut eta, ez dakit non ezta zertarako ere, baina orain ninerako ongi datorkit–: hasten denak kontu egin dezala belar oso txarrak dituen lur onura gabeen baratze bat egiten hasten dela, Jaunak bertan atsegin har dezan. Haren Maiestateak belar txarrak atera eta onak landatu behar dituela. Bada, kontu egin dezagun, hau eginda dagoela arimak otoitzari ekiteko erabakia hartzen duenean eta erabiltzen hasten dela. Eta Jainkoaren laguntzaz saiatu behar dugula, baratzezain onak bezala, landare hauek haz daitezen eta arretaz ureztatu gal ez daitezen, loreak eman ditzaten baizik, gure Jaun honi atsegin emateko usain gozoko loreak, horrela sarri-sarri etor dadin baratze honetara atsegin hartzera eta bertute hauen artean gozatzerá” *Bizitza Liburua*, 11, 6).

11. kapitulutik 21.eraingo, otoitzari buruzko irakaspen eder miresgarria agertzen digu, baratzearen eta uraren irudiak erabiliz. Atal honetan Teresa kontenplazio eta otoitz bizitzaren maistra gorena agertzen zaigu. Hona, esate baterako, 14. kapituluko 9. zenbakian datorrena:

“Orain itzul gaitezen geure ortu edo baratzerá, eta ikus dezagun nola hasten diren zuhaitz hauek pipiltzen loratzeko eta gero fruituak emateko, eta loreak eta krabelinak ere berdín, usain gozoa emateko. (...) Atsegin handia ematen zidan neure arima baratze bat zela eta Jauna bertan paseatzen irudikatzeak”.

Konparazio ugari utzi ditut alde batera, baina *Bizitza Liburu*ko azken kapituluan datorrenari erreparatu diot. Jainkoaren ikuskariez txunditurik geratzen da, eta konparazioak darabiltza nolabait aditzera ematearren. Behin Jainkoa eguzkia balitz legez ikusiko zuen, haren argitan bere bekatuen amaraunak ez

eze, inperfekzioen hauts txiki-txikia ere ikusten baitzituen. Goian aipaturiko kapitulu horretan, berriz, diamante distiratsu gisa agertzen digu:

“Esan dezagun Jainkotasuna diamante argi-argi bat bezala dela, mundu osoa baino askoz ere handiagoa, edota ispilua dela, arimaren beste ikuskari horretaz esan nuenaren antzera; baina era askoz ere goragokoa delako, adierazten jakingo ez nukeena; eta egiten dugun guztia diamante horretan ikusten da, guztia bere barruan hartzen duena izanik, handitasun honetatik kanpo ez baitago ezer. Izugarria iruditu zitzaidan hain une laburrean hainbeste gauza batera ikustea diamante argi honetan, eta oso samingarria, gogora etortzen zaidan bakoi-tzean, argitasunezko garbitasun hartan, hain gauza itsusiak irudikatzen zirela ikustea, esaterako, nire bekatuak. Eta beraz, gogoratzen zaidanean, ez dakit nik nola eraman dezakedan, eta horrela hain lotsatua geratu nintzen, non ustez ez bainekien non sartu ere”.

Oso ospetsua da eta literaturako antologietara ere igaro dena, arima amaren bularrean edoskitzen dagoen haurrarekin parekatzen duena:

“Eta arreta osoa jar ezazue konparazio honetan, hari-harira datorrena dela uste baitut: arima oraindik titia hartzen duen haur bat bezala dago bere amaren bularrean dagoenean, eta amak, hark ahogozatzen ez duela, esnea botatzen dio ahora goza dezan” (*Perfekzio Bidea*, 31, 9).

Eta gehiegi ez luzatzearren, beste alegoria batekin amaitutzat emango dugu lan hau: tximeletatxoarena:

“Entzungo zenituzten, nonbait, zeta nola egiten den azaltzean haren gauza harrigarriak, Berak egin baitezake soilik halako asmakaria, eta nola piperbeltzaren ale txikien antzekoak omen diren hazi batetik (nik sekula ez dut ikusi, baina bai entzun; eta horrela, zerbait oker esaten badut, errua ez da nirea), beroarekin, masustondoetan hostoa irteten hasi ahala, hasten

da hazi hau bizi izaten; mantentzeko behar duten elikagai hau izan arte, hilik dago; eta masustondoaren hostoekin hazten dira, handi egin ondoren, abartxo batzuk ezartzen dizkiete eta han ahotxoekin beren baitatik zeta ehoz doaz eta kusku estu-estuak lantzen dituzte eta beraietan ixten dira; eta handi eta itsusia den har hau hil egiten da, eta kusku barnetik tximeleta-txo zuri bat irteten da, oso polita. Baina hau ikusi ez, eta beste garai batzuetakoa kontatuko baligute, nork sinets dezake? Zer arrazoiz atera dezakegu, har bat eta erle bat bezalako izaki hain arrazoi gabeak gure onerako lan egiten hain arduratsuak eta hainbesteko trebetasunaz ari direnak izan daitezkeenik, hartxo gaixoak bizia ahalegin horretan galtzeraino? Besterik esaten ez badizuet ere, zati baterako baduzue hemen, ene ahizpak, hausnartzeko, horretan gure Jainkoaren miragarriez eta jakinduriaz gogoeta egiteko aukera baituzue” (*Barne Gaztelua*, 5. Egoitzak, 2. kap. 2. zenb.).

Luis Baraiazarra Txertudi